

BATZORDEBURUA
Josu Artetxe

AIARAKO UDALAK 2014ko MARTXOAREN 20an
EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Lauren Uria
Esteban Hernando
Aitziber Alava
Garbiñe Alaña
Esmeralda Martínez
José Antonio Bartolomé
Iratxe Parro
Iraida Saenz de Lafuente
José Luis Pedruzo

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamalauko martxoaren hogeian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Josu Artetxe Arana alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

Jarraian, Eguneko Aztergaien Zerrendan dauden gaiak jorratu dira.

BERTARATU EZ

DIRENAK:

Julio Echaurren

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak arratsalde on esan eta Udalbatzara ongi etorria eman die guztiei.

Garbiñe andreak (EAJ) Julio Echaurren jaunaren bertaratu ezina adierazi du, oraindik ospitaleratuta baitago.

Jarraian, Eguneko Aztergaien Zerrendako gaiak aztertzeari ekin diote.

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2014ko otsailaren 20an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Iratxe andreak (AB) adierazi du laugarren puntuan, berak eginiko parte-hartzean, Bildu taldekoa dela jartzen duela, Aiara Batuz taldekoa izan beharrean.

Idazkariak esan du akta aldatu egingo dela.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, korporazioko kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- Onestea, bidezkoa bada, “Zaborra batzeko zerbitzu publikoa emateagatiko tasa” arautzen duen ordenantzaren aldaketa.

Josu jaunak (BILDU) esan du gai hori Batzordean jorratu zela eta aldeko irizpena eman zutela.

Garbiñe andreak (EAJ) adierazi du eurek kontrako botoa emango dutela, bere taldeak uste dutelako % 10eko igoyerarekin jarraitu behar zutela, jada ordenantza horretan onetsita baitzegoen.

Iratxe andreak (AB) honako idazki hau irakurri du:

“Zaborren kontua jorratu zuten azken batzordean, Aiara Batuz taldeak eskatu zuen bermatzeko landa inguruetan edukiontzia egotea. Eskualdeko Ingurumen Arloko teknikariak

emandako datuek adierazten zuten hondakin-zatikien kg kopuru handiagoa jasotzen zela landa inguruetan hiri inguruetan baino, eta nabarmena zela biztanleko kg-en alde landa eta hiri inguruetan artean.

Datu horien arabera eta aintzat hartuta gure ustez landa inguruetan birziklatzeko edukiontzi gutxi dagoela, pentsatu genuen arrazoietako bat, hain justu, hori izan zitekeela: etxeen eta hurbilen dagoen birziklatzeko gunearen artean dagoen tartea, kasu batzuetan zenbait kilometrotakoak baitira.

Jasotako informazioa izan da, teknikariak Aiarako zenbait herri bisitatu ondoren, birziklatzeko beste 12 gune jarri dituztela, gune horietan beharrezko atzeman zelako.

Uste dugu zaborren gaiari buruzko azterketa ezin dela geratu taseen igoera horretan. Eskualde mailan guztiontzako tasa berdina ezartzea proposatzen ari dira; eztabaida neketsua eta seguruenik luzea izango da. Bada, udalerrien arteko azterketa bateratu horren emaitza zein den ikusteko itxaron gabe, uste dugu lanean jarraitu behar dugula Aiaran gehiago birzikla dadin eta hondakin zatiki gutxiago jaso dadin; izan ere, azken batean hori da gaur egun ordaintzen duguna.

Garrantzitsua da herritarrak kontzientziaztea birziklatzeak duen garrantziaren inguruan, hala ingurumen arloan nola arlo ekonomikoan; izan ere, ontzi, beira eta kartoiak edukiontzien kudeaketa ez dugu ordaintzen eta, beraz, ez du eragiten gaur handitzea proposatu duten tasetan.

Gure taldeak uste du ezinbestekoa dela kontzientziazteko eginkizuna. Orain arte kontu handiagoarekin zaindu dira hiriko guneak, horietan bizi diren biztanle kopuruagatik eta jende askori eragiten ziotelako. Beraz, landa guneetan lan egiteko eta kanpainak herri horietara bideratzeko unea iritsi da. Zabor kg bakoitza kudeatzeko kostua ekartzen digu, edozein herritakoa izanda ere. Beraz, edukiontzi grisetan jasotako kg horiek guztiak ordaintzen ditugun guztioi interesatzen zaigu ahalik eta gutxienez izatea eta gehiago birziklatzea.

Gaur egun bi tasa daude, jasotako maiztasunaren arabera, baina araudiak berak ez du aipatzen "kutsatzen duenak ordaintzen du" printzipioa. Horretarako, Udalak, berdinak ez baina antzeko aukerak eman behar ditu herritarrek erosotasun osoz birzikla dezaten."

Josu jaunak (BILDU) esan du horrekin ados dagoela.

Beste aipamenik egon ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta honako hau izan da emaitza:

-Aldeko botoak: 6 (4 BILDU + 2 AB)

- Aurkako botoak: 4 (3 EAJ + 1 PP)

Eta hori dela bide, eta

HONAKO HAU IKUSI DA: Udalbatzak atzeman du beharrezkoa dela Zaborren zerbitzu publikoa emateagatik tasa arautzen duen ordenantza aldatzea, ahal den heinean emandako zerbitzuaren benetako kostuen arabera izan dadin.

HONAKO HAU IKUSI DA: Lehen Sektorea eta Ingurumena Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman zuen 2014ko martxoaren 11ko bilkuran.

HONAKO HAU AINTZAT HARTU DA: Aiara udalerrian sortutako etxeko hondakinak eta horiekin pareka daitezkeenak batzeko eta kudeatzeko zerbitzuan aurreikusitako kostuak.

Udalbatzak honako hau **EBATZI DU:**

Lehenengoa.- Hasiera batean onestea Zaborren zerbitzu publikoa emateagatiko tasa arautzen duen ordenantzaren aldaketa hauek:

Zaborren zerbitzu publikoa emateagatiko tasa arautzen duen aipatu ordenantzaren **I. ERANSKINA** aldatzea. Tarifei buruzkoa da, eta jarraian adierazi bezala geratu da:

TARIFA

1. epigrafea: etxebizitzak

- Luiaondon eta Arespalditzan batzeagatik: **27,25 €** etxebizitza eta urte bakoitzeko.
- Udalerriko gainerako lekuetan batzeagatik: **21,80 €** etxebizitza eta urte bakoitzeko.

2. epigrafea: beste erabilera batzuk dituzten saltokiak eta lokalak

- Batzeagatik: **159,43 €** urteko.

3. epigrafea: enpresak.

- Gehienez ere okupatutako azaleraren 1.000 m²: **159,43 €** urteko.
- Okupatutako azaleraren 1.001 m² baino gehiago: **221,28 €** urteko.

ZERGAK BILTZEKO EPEA:

- Urteko azken hiruhilekoa.

Zaborren zerbitzu publikoa emateagatiko tasa arautzen duen aipatu ordenantzaren **II. ERANSKINA** aldatzea. Tarifei buruzkoa da, eta jarraian adierazi bezala geratu da:

2015etik aurrera, eta urtero, I. Eranskinean jasotako tarifak eguneratuko dira. Horretarako, gutxienez KPIren eguneraketarekin bat datorren ikuskapena egingo da, zerbitzuak hala eskatzen duenean gerora tarifetan egon daitezkeen aldatetetan eragin gabe.

Bigarrena.- Hasiera batean onestea Zaborren zerbitzu publikoa emateagatiko tasa arautzen duen ordenantzaren aldaketa.

Hirugarrena.- Ebazpen hau argitaratzea ALHAOn, jendaurrean ikusgai egon dadin hogeita hamar egunez, interesdunek bidezkozat jotzen dituzten alegazioak aurkezte aldera.

3.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta “Hogeitalau Euskara Elkarte”-ren arteko eginiko lankidetzaren hitzarmena.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Aho batez onetsi da.

Eta hori dela bide

HONAKO HAU IKUSI DA: Udalak interesa du euskararen ezagutza eta erabilera udal arlo guztietan sustatzeko.

HONAKO HAU IKUSI DA: Hogeitalau Euskara Elkarteak izena eman du Aiara udalerriko elkarten erregistroan, eta, besteak beste, euskararen ezagutza eta erabilera soziala bultzatzea du helburu.

HONAKO HAU IKUSI DA: Aiarako Udala eta Hogeitalau Euskara Elkarteak lankidetzan aritzeko hitzarmena, 2014 ekitaldirako.

HONAKO HAU IKUSI DA: Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman zuen 2014ko martxoaren 11ko bilkuran.

HONAKO HAU AINTZAT HARTU DA: Hitzarmen horrek arautu egiten du Aiarako Udalak Hogeitalau Euskara Elkartearen alde zuzenean emandako diru-laguntza, eta udal aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia duen partida nominatiboa dago, Udalari hitzarmena sinatzeak dakarkion gastua bere gain hartzeko.

Udalbatzak honako hau **ERABAKI DU** aho batez:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Hogeitalau Euskara Elkartearen artean 2014 ekitaldirako sinatuko den lankidetzako hitzarmena, Aiara udalerrian euskara sustatzeko ekimenak eta jarduerak bultzatzeko asmoz.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.

Laugarrena.- Hitzarmena sinatutakoan, Hogeitalau Euskara Elkarteari jakinaraztea eta horren bi ale helaraztea, sina ditzan eta geroago Udalari ale horietako bat itzul diezaion.

4.- Alkatetza dekretuak:

- **Erref.- 43/14.- TLA.-** Luiaondoko San Lorenzo kaleko 13. zenbakian dagoen eraikinean gutxieneko eta premiazko neurriak hartzeko eskakizuna.
- **Erref.- 44/14.- Onestea F/2014/1 zenbakiko fakturen kontabilitate zerrenda.**
- **Erref.: 45/14.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batza.-** Obrarako lizentziari buruzko agiri gehiago eskatu zaio.
- **Erref.- 46/14 zenbakitik 86/14 zenbakira bitartean, biak barne.-** Diru-laguntza ematea 2012-2013 ikasturtean euskara ikasteagatik.
- **Erref.- 87/14.-** Onestea Bideetan eta errepide nagusietarako loturetan garbiketa mekanikoaren zerbitzua kontratatzeko indarrean egon behar duten baldintza ekonomiko eta administratiboen eta preskripzio teknikoen pleguak.
- **Erref.- 88/14.- Menagarai-Beotegi Administrazio Batza.-** Udal lizentzia ematea "Menagarai-Beotegin sakabanatutako baserrietako hondakin uren saneamendu partziala eta argiteria publikoa" proiektuaren obrak gauzatzeko; izan ere, ez zen horretarako baimenik eman 2013ko azaroaren 22ko 437/13 Alkatetza Dekretuan.
- **Erref.- 89/14.- Menagarai-Beotegi Administrazio Batza.-** Obrarako udal lizentzia ematea edateko uraren hornikuntza instalatzeko Beotegin dagoen "El Palomar" baserrirako.
- **Erref.- 90/14.- AAM-** Obrarako udal lizentzia ematea Luiaondon dagoen eraikin bat konpontzeko.
- **Erref.- 91/14.- Balgorza, SA.-** Luiaondon gainazaleko aparkaleku bat eraikitzeko obrarako aurkeztu den abala itzultzea.

- **Erref.- 92/14.-** VPRri biztanleen udal erroldan baja emateko espedientea onartzea, behar ez bezala inskribatuta egoteagatik.
- **Erref.: 93/14.-** JMPP Ibilgailuen gaineko udal zergan hobaria ematea bere jabetzakoa den ibilgailua historikoa dela egiaztatzeagatik.
- **Erref.- 94/14.- AXPO IBERIA, SL.-** Jabari publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea. 2013ko lehenengo hiruhilekoa.
- **Erref.- 95/14.- AXPO IBERIA, SL.-** Jabari publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea. 2013ko laugarren hiruhilekoa.
- **Erref.- 96/14.- AXPO IBERIA, SL.-** Jabari publikoa okupatzeagatiko tasaren likidazio osagarria. 2013ko hirugarren hiruhilekoa.
- **Erref.- 97/14.- Obra txikien programa 2014rako diru-laguntza eskatzea**
- **Erref.- 98/14.- Talleres Banoa, S.L.-** Jarduera lizentzian eskatutako neurri zuzentzaileak ezarri direla egiaztatzen duen dokumentazioa eskatu zaio.
- **Erref.- 99/14.- Arespalditza Administrazio Batza.** Eskatutako obrarako lizentziari dagokion dokumentazioa zabaltzeko eskatu zaio.
- **Erref.- 100/14.- Arespalditzako Administrazio Batza.-** Obrarako udal lizentzia ematea "Inarza auzoa - Etxaurren baseliza" baso bidea konpontzeko.
- **Erref.- 101/14.-** Amaitutzat eman da Arespalditzan "ludotekarako lokala egokitzea" obrarako eta jarduera salbuetsirako lizentziari buruzko espedientea.
- **Erref.- 102/14.- IAC.-** Jarduera irekitzeko eta legezatzeko lizentzia ematea, Costerako abeltzaintza ustiategirako.
- **Erref.- 103/14.- UCA.-** Jarduera irekitzeko eta legezatzeko lizentzia ematea, Costerako abeltzaintza ustiategirako.
- **Erref.- 104/14.- MMVS.-** Obrarako udal lizentzia ematea, Menoion dagoen etxebizitza baten estalkia konpontzeko.
- **Erref.- 105/14.- Luiondoko Padurako kaleko 17. zenbakiko etxejabeen elkartea.-** Obrarako udal lizentzia ematea Luiaondoko Padurako kaleko 17 eta 21 zenbakiko eraikinen artean dauden itxiturak aldatzeko.
- **Erref.- 106/14.- TEI.-** Fidantza eskatu zaio Olabezarren eraiki den estalgunearen hondakinak behar bezala kudeatzeko.
- **Erref.- 107/14.- FJCS.-** Obrarako udal lizentzia ematea terraza bat eraikitzeko Luiaondon duen lorategian.
- **Erref.- 108/14.- Novales Alday, SC.-** Obrarako udal lizentzia ematea Sojon dagoen lursail batean harri-lubeta egiteko.
- **Erref.: 109/14.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batza.-** Landa eremuko finak banantzeko eta obrarako lizentziari buruzko agiri gehiago eskatu zaizkio.
- **Erref.- 110/14.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batza.-** Behin-behineko obra txikietarako udal lizentzia ematea, Menagarai herriko Mendieta auzoko 18. zenbakian dagoen eraikinerako.
- **Erref.- 111/14.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batza.-** Gizarte Zentroa jardueran neurri zuzentzaileak ezartzea, jardueraren alde zuzeneko jakinarazpenaren prozeduraren baitan.
- **Erref.- 112/14.- JABP.** Hobaria ematea Ibilgailuen gaineko Udal Zergan, familia ugarikoa izatea egiaztatzeagatik.
- **Erref.- 113/14.- Ozekako Administrazio Batza.-** 2013ko herriko jaiak ospatzeko gastua finantzatzeko emandako diru-laguntza itzultzeko eskakizuna.
- **Erref.- 114/14.- Etxegoieneko Administrazio Batza.-** 2013ko herriko jaiak ospatzeko gastua finantzatzeko emandako diru-laguntza itzultzeko eskakizuna.

- **Erref.- 115/14.- JRIA.-** Obrarako udal lizentzia ematea Arespalditzan dagoen etxebizitzako terrazan baldosak aldatzeko.
- **Erref.- 116/14.- IUL.-** Obrarako udal lizentzia ematea labearen eta oilategiaren estalkia teilaberritzeko Zuazan.
- **Erref.- 117/14.- FZG.-** Obrarako udal lizentzia ematea itxitura jartzeko Kexaan dagoen lursailaren eta bertako bidearen artean.
- **Erref.- 118/14.- TEI.-** Obrarako udal lizentzia ematea, Olabazarren estalgunea eraikitzeko.
- **Erref.- 119/14.- AAA.-** Obrarako udal lizentzia ematea Beotegin dagoen etxolan estalkia teilaberritzeko.
- **Erref.- 120/14.- AER.-** Obrarako udal lizentzia ematea Beotegin dagoen etxebizitzako estalkia eraberritzeko.
- **Erref.- 121/14.- MJAM.-** Obrarako udal lizentzia ematea Luiaondon dagoen etxebizitza bateko estalkia eraberritzeko.
- **Erref.: 122/14.- IPG.** Ibilgailuen gaineko udal zergaren salbuespena ematea, minusbaliotasun maila bat egiaztatzeagatik.

Batzordekideak Alkatetza Dekretuaren jakitun geratu dira.

5.- Eskaerak eta galderak.

Ez denez eskaerarik edo galderarik egin, Josu jaunak (BILDU) bertaratutako guztiei "Aiaraldeko Gure Exkuntza Plataforma"-n parte hartzeko gonbidapena egin die, eta plataforma horrek aurkeztutako idazkia irakurri du. Idazki hori I. ERANSKIN gisa erantsi da akta honetan.

Osoko Bilkura amaitutzat eman baino lehen, alkate jaunak adierazi du apirileko hurrengo osoko bilkurak bat egiten duenez hilaren 17ko ostegunarekin (Ostegun Santua), aurreko egunera aldatuko dutela, hau da, apirilaren 16ra (asteazkena).

Jorratzeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta hogeita bost minutu zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamalauko martxoaren hogeian.

OE
ALKATE-UDALBURUA


IDAZKARIA,

Izpta.: Josu Artetxe Arana

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.

— J. ERANSKINA —

AIARALDEAKO GURE HEZKUNTZA PLATAFORMA



Airaldeako Gure Hezkuntza Plataformaren aurkezpena

burutuko dugu martxoaren 22an Laudioko Herriko Plazan.

Urtarrilaren 15ean Aiar eskualdeko ikastetxe ezberdinetako kideak (irakasle, guraso, langile eta ikasleak) Laudioko Kultura Etxean elkartu ginen. Euskal Herriko beste hainbat tokitan jorratutako bidea ezagututa, Barakaldo, Santurtzi, Gasteiz, Muskiz, Irun... Madrilgo gobernu aplikatzen hasia den LOMCE legeari gure inguru hurbileko hezkuntza komunitatetik erantzun bat bideratzeko asmoak bildu gintuen.

Ekimenaren ondorioz **Aiaraldeako Gure Hezkuntza Plataforma** sortu dugu. Hezkuntza esparruan ari diren norbanakoz osatutako foro irekia sortu dugu bi helburu nagusi jorratzeko asmoarekin: **LOMCE legearen inposaketan aurkako erantzuna aktibatzea** eta etorkizunari begira gure herrirako nahi dugun **Hezkuntza Sistema berriaren eraikuntzarako** urratsak ematen hastea.


Plataformak xede biei heltzeko ekimen ezberdinak bideratu nahi ditu, ikastetxe bakoitzeko hezkuntza komunitateak garatzekoak zein udalerrietan lantzekoak, irekiak eta parte hartzaileak.

Aiarako ikastetxe eta herri ezberdinetako **40 pertsona** inguru batu gara dagoeneko plataformaren kontaktu sarean; **Airaldeako 12 ikastetxetako** guraso, irakasle, langile edo ikasleak bildu gara bertan, besteak beste, Laudioko Latorro eskola, Laudio Ikastola, Laudio Institutua, Udal Lanbide Heziketa Eskola eta Lamuza Eskola, Amurrioko Lucas Rey-Matias Landaburu eskola, Aresketa Ikastola, Zaraobe Institutua, Zabaleko eskola, Orozkoko eskola, Urduñako eskola eta Aiarako Etxaurren Ikastola eta oraindik, jakina, ekimena zabaltzeko lanean ari gara.

Aurkezpen ekitaldia

Martxoaren 22an burutuko dugu Aiaraldeako Gure Hezkuntza Plataformaren aurkezpen ekitaldia 12:00etan Laudioko Herriko Plazan. Bertan datozen hilabeteetan abiatzera goazen lehen bi dinamika ere plazaratuko ditugu: **“LOMCErik gabeko herriak”**

AIARALDEAKO GURE HEZKUNTZA PLATAFORMA



ekimena eta Hezkuntza Plataformen Topaguneak bultzatuko duen **sinadura bilketaren** eskualderako abiapuntua.

Eskualdeko irakasle eta hezkuntzako langileak, ikasleak, gurasoak, herritar guztiak finean, aurkezpen ekitaldian parte hartzera deitu nahi ditugu. Honez gain ikastetxeetako zuzendaritza taldeak eta guraso elkarteak, Udaletxetako hezkuntza arduradunak eta eragile sozialak espresuki gonbidatu ditugu ekitaldi honetara.